



GOBIERNO
DE ESPAÑA

GOBERNUAREN
ORDEZKARITZA
EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN

GOBERNUAREN
ORDEZKARIORDETZA
GIPUZKOA



Edita: Ministerio de Política
Territorial y Función Pública
NIPO: 277-21-00456

Zerbitzu Elektronikoen Karta 2021-2024

365 egun
24 ordu

GOBERNUAREN ORDEZKARITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN
GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA GIPUZKOA



AURKEZPENA.

Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzak Estatuak probintzian duen administrazioa zuzentzen du, herritarrei dagoeneko finkatuta duen **Zerbitzu-Gutun** jasota dauden zerbitzu-eskaintza zabala eskaintzen die.

Horren osagarri gisa, Elektronikoki gero eta zerbitzu gehiago tramitatu ahal direnez osorik edo partzialki, Zerbitzu Elektronikoen Gutun hau aurkezten da herritarrei administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez edozein unetan komunikatzeko erraztasunak emateko. Horretarako, Ordezkariordeztzak honako hauek eskaintzen ditu:

INFORMAZIO PUNTUAK

WEB Ataria



SARE SOZIALAK

Twitter



mailto:informacion_registro.gipuzkoa@correo.gob.es



943.989.000

TRAMITAZIO ETA KUDEAKETA PUNTUAK



EGOITZA ELEKTRONIKOAK





Ematen diren zerbitzu elektronikoak.

Ordezkariordeztan ematen diren zerbitzuen kopurua gero eta handiagoa elektronikoki egiten da osorik edo neurri batean.

Zerbitzu elektronikoaren zerrenda zehatzera eta horiek abian jartzeko prozedurara sartu aurretik, zerrenda labur bat jasotzen da zeinean hasteko edo izapidetzeko aurki daitezkeen zerbitzu motei buruz:

- Herritarrari Informazioa eta Arreta ematea.
- Etorkinei bideratutako zerbitzuak Espainian.
- Enplegua edo etorkinekin loturiko zerbitzuak.
- Atzerriko titulu akademikoaren homologazioa/baliokidetasuna eta tituluak ematea.
- Lehergai eta pirotekniarekin loturiko espedienteen izapidea.
- Desjabetzeak. Balio justuko espedienteen izapidea
- Estatuaren esku-hartzea larrialdi edo ondamen-egoeren aurrean.
- Nazioarteko txertaketa.
- Farmazia-ikuskaritza.
- Kanpoko Osasungintza.
- Landare-osasungintza/landare-osasunerako beharrezko kontrola produktuak inportatzeko/esportatzeko.
- Animalia-jatorriko produktuen eta animalien elikadurarako zuzenduriko produktu begetalen esportazio/inportaziorako beharrezkoa den albaitari-kontrola.
- Aisialdiko itsas arrantza.
- Kudeaketa ekonomikoa.
- Garraioak (ATLANTIS barne).
- Justizia.
- Zigor Administrazioei dagozkien espedienteak.
- Baimen administrazioen eskaera.
- Enpresa eta Beste Administrazio batzuentzako zerbitzuak.

Honako hau da eskuragarri dauden zerbitzu elektronikoen zerrenda osoa:





ompromisoak eta bere

egiaztatzea.

Epeak betetzeari buruzko legezko betebeharrak alde batera utzita, Ordezkariordeztzak konpromiso batzuk hartzen ditu zeintzuk etengabe hobetzeko helburuaren arabera, eta gutun honen indarraldiaren barruan, eguneratzen joango diren, ematen diren zerbitzu elektronikoekin bat etortzeko.

Hartutako konpromisoak eta horiek hiru hilean behin eguneratzea hemen kontsulta daitezke:





onexiorako baldintzak.

Gaur egun, nabigazio-programa desberdinekin, segurtasun-maila desberdineko konexioekin eta abarrekin lan egiten duten ekipamendu desberdinetatik (ordenagailuak, telefonoak, tabletak) sar daiteke zerbitzu elektronikoetara.

Sarbide horrek, kasu batzuetan, erabiltzailearen identifikazio digitala eskatuko du baliabide desberdinen bidez, zeintzuen artean, gaur egun, **cl@ve** plataforma nabarmentzen den. Halaber, beste kasu batzuetan elektronikoki sinatu beharko da zeintzuetarako egungo **AutoFirma eta @Firma** bezalako plataformak erabili beharko diren, etorkizuneko aldaketak zeintzuk erantsitako dokumentuan islatuko diren kalterik gabe.

Nolanahi ere, egungo bilakaera teknologikoa kontuan hartuta, eskakizun tekniko espezifikoa erantsitako fitxategi batean jasotzen dira, zeinean Administrazioak fitxategi hori eguneratuko duen gertatzen diren aldaketa teknologikoekin.





uzentze-neurriak konpromisoak

betetzen ez badira.

Gutun honetan hartutako konpromisoak betetzen ez badira, erabiltzaileek gutun honen ardura duen unitatera jo ahal izango dute, **idatziz, posta elektronikoz, bide telematikoz Kexa edo Iradokizun gisa**, eta zehaztu beharko dute zer konpromiso ez den bete eta ez betetze hori eragin duten gertakariak.

Erakundeko arduradunak ez-betetzearen zergatien berri emango dio herritarrari, eta hala badagokio, hartutako jardueren eta neurrien berri ere. Halaber, barkamena eskatuko du erreklamazio horien inguruan hutsunerik antzemanaz gero.

Gutun honetan adierazitako konpromisoak ez betetzeagatiko erreklamazioek ez dute inola ere ekarriko Administrazioaren ondare-erantzukizunik.



Unitate arduraduna

Zerbitzu Elektronikoen Gutun honen Unitate arduraduna honako hau da:

Gobernuaren Ordezkariordeztaren Idazkaritza Nagusia

Helbidea: Pio XII plaza, 6 – 20010 Donostia (Gipuzkoa)

Posta elektronikoa: secretario_general.gipuzkoa@correo.gob.es

Telefonoa: 943 98 92 51 (Orduategia: 9etatik 14etara)

Aipatu Unitatea arduratuko da hura betetzen dela zaintzeaz eta dagozkion hobekuntza-ekintzak egiaztatzeaz.



Argitalpena eta Gutunaren baliotasuna.

Zerbitzu Elektronikoen Gutun hau, gutxienez, hemen argitaratuko da:

- Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioaren WEB ataria
- Gardentasunaren ataria.
- Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztaren WEB ataria
- Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioaren egoitza elektronikoa.
- Estatuko Administrazioaren Sarrera Puntu Orokorrean.

Gutun honen indarraldia 3 urtekoa izango da (2021 - 2024).